

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	BANKADAKO KONPONKETA	Iraupena	70
		Baldintzatua	
Kodea	UF0946		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen karrozeria		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailuetako karrozerien egituren mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Ibilgailuen egitura-elementuak.	Iraupena	200
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Egitura deformatuen egiaztapena.	Iraupena	40
	Bankadako egituraren posizionamendua eta kontrola.	Iraupena	90

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0125\_2 IBILGAILUAREN EGITURA KONPONTZEA gaitasun-ataleko LB3 lanbide-burutzapenarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Aurrealdeko deformazioak trebetasunez konpontzea, tenkaketa-ekipoekin eta -tresnekin.

EI1.1 Aurrealdeko egitura-deformazioak konpontzea.

- Garbiketa-metodo egokia hautatzea, zikinak dauden kalteak ezkuta ez ditzan.
- Konformazioari, oro har, eragiten ez dioten ibilgailuaren elementuak desmuntatzea.
- Barailak estribuen erlaintzetara amarratzen diren begiratzea.
- Kaltetutako zatian tiraldiak egitea, estekatutako elementuak askatzeko.
- Kaltetutako zatiaren kotak kontrolatzea.
- Tiroen eta kontratiroen norabidea hautatzea.
- Tenkaketan behar den baraila-mota hautatzea.
- Barailaren eta ibilgailuaren artean segurtasun-eslinga jartzea.
- Tiroa pixkanaka jartzea, une oro konformazioaren eboluzioari jarraituz.
- Tiro-norabidea aldatzea beharrezkoa den begiratzea, kotak kontrolatuz.

A2: Erdialdeko deformazioak trebetasunez konpontzea, tenkaketa-ekipoekin eta -tresnekin.

EI2.1 Erdialdeko egitura-deformazioak konpontzea.

- Konformazioari, oro har, eragiten ez dioten ibilgailuaren elementuak desmuntatzea.

EI2.2 Ibilgailuaren kotak begiratzea, bihurtura izan baitezake egituran.

- Deformazioek estribuari eta erdiko zutabeari eragiten dieten begiratzea.
- Deformazioek zoruari eta sabaiari eragiten dieten begiratzea.
- Egiaztatzea barailak ibilgailuari amarratzen zaizkiola baina bankadari ez zaizkiola amarratzen.

EI2.3 Kontratiroa atzealdean eta aurrealdean jartzea.

- Katu hidraulikoa kaltetutako aldearen bi barailen artean jartzea.
- Oinarri lauuko ukondoa duen tiroa jartzea.
- Segurtasun-eslinga jartzea.
- Estribuan eta zoruan tiroak egitea.
- Ondoko elementuetan kotak eta deskoadreak begiratzea.
- Estribuan tiroak egitea, haren simetria lortzeko.
- Kaltetutako aldearen ateak jartzea, simetria kontrolatzeko.

A3: Atzealdeko deformazioak trebetasunez konpontzea, tenkaketa-ekipoekin eta -tresnekin.

EI3.1 Atzealdeko egitura-deformazioak konpontzea.

- Konformazioari, oro har, eragiten ez dioten ibilgailuaren elementuak desmuntatzea.
- Ondoko elementuetan kotak eta deskoadreak begiratzea.
- Egiaztatzea baraila ibilgailuan amarratzen dela.

EI3.2 Kontratiroa deformazioaren alderantzizko aldean jartzea.

- Tiroa deformazioaren aldean jartzea.
- Tiroa ezartzeko behar den baraila jartzea.
- Segurtasun-eslinga jartzea.

EI3.3 Alde deformatuan tiro bat ezartzea.

- Maletategiaren hutsunean tiro bat aplikatzea katu hidraulikoarekin.
- Ondoko elementuak beren posizioan ondo ahokutzen diren begiratzea.
- Atzeko langaluzean tiroak ezartzea, tentsioak ezabatzeke.
- Katu hidraulikoa zoruaren azpialdean jartzea, tiro konbinatu bat egiteko.
- Ibilgailuaren kotak aztertzea.

## **Edukiak**

### **1. Bankadako konponketetan erabiltzen diren metodoen eta tekniken kontzeptuak.**

- Bankadaren alde hauetan deformazioak konpontzeko metodoa:
  - Aurrealdean.
  - Erdialdean.
  - Atzealdean.
- Alde hauetan tiroak eta kontratiroak jartzeko teknika:
  - Aurrealdean.
  - Erdialdean.
  - Atzealdean.

### **2. Tiroak egiteko erabiltzen diren teknikak.**

- Hauek jartzea:
  - Tiroetan eta kontratiroetan, segurtasun-eslinga.
  - Ate-zuloetan, tiranteak, deskoadratzerik ez egoteko.
  - Erdialdeko tiroetan, barailak.
  - Erdialdeko tiroetan, katu hidraulikoa.
  - Atzealdean, erronbo-formako katu hidraulikoa.
  - Tiro konbinatua egiteko katu hidraulikoa.
  - Ateekin eta beirekin jarraitu beharreko prozedurak.
  - Altueren erregulazioa dorreetan eta eskuairetan.

### **3. Bankadako konponketetan erabiltzen diren erremintak eta tresnak.**

- Tiratzeko dorrea.
- «L» motako tiro-eskuaira.
- Katu hidraulikoa.
- Dorre integratuko bankadak.
- Presio bidezko sistema hidraulikoak.
- Fabrikatzaileak homologatutako kateak.
- Luzatze-barailak.
- Trakzio-pintza.
- Guraize-pintza autooratzaila.
- Ilargierdia.
- McPherson dorretxoetarako eskuz eragiteko osagaia.
- Trakzio-kako unibertsalak.
- Elementuak beren lekutik ez mugitzeko tiranteak.
- Itzulketa-poleak.
- Segurtasun-eslingak.

### **4. Tenkatutako egitura kontrolatzeko teknikak.**

- Kontrolatu beharreko puntuak kokatzeko prozedurak.
- Hauek aztertzea:
  - Ondoko eremuetako kotak.
  - Mekanika muntatuko eta desmuntatuko kotak.
  - Egitura-elementuetako kotak.
- Guneen neurketa.
- Elementu mugigarrien bidez kotak aztertzea.
- Neurketa-tresnekin kontratiroak jartzea.
- Ibilgailu asimétrikoetako kontrola.

## **C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesioaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza--atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0945: Bankadako egituraren posizionamendua eta kontrola.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailuetako karrozerien egituren mantentze-lanak